

J. VERNE

INSTITUTUKO MISTERIOA

Polizien sirena entzun nezakeen. Azken bi aste hauetan zortzi pertsona desagertu ziren Aiguèzeko J. Verne institutuan. Inork ez zekien zergatia, baina jendea geroz eta ikartuago zegoen. Azken egunetan gutxienez 70 ikasle eskolaz aldatu ziren, lagun asko galdu nituen eta gelditzen zirenak ere eskolaz aldatzeko asmoarekin zebiltzan. Oraintxe bertan eskolako areto nagusian ginen. Eskola oso txikia da eta kurtso bakoitzeko gela bat soilik dago; beraz, joan diren ikasleen artean, gehi desagertu direnak kontuan hartuta, 40 ikasle baino gutxiago gelditzen gara.

—Isiltasuna, mesedez. Berri txar bat dugu. Gaur, Itsaso Etxeberria, 3. mailako oso ikasle on bat desagertu da. Honekin bedcratzi ikasle desagertu dira azken bi astetan; espero dugu poliziak zerbait egitea, baina ni zuek izango banintz eskolaz aldatuko nintzateke. Eskerrik asko.

Hauek izan ziren Basarte zuzendariaren hitzak. Ezin nuen sinetsi; zuzendariak berak eskolaz aldatzeko esan zigun! Gelara iritsi nintzenean Historiako klasea tokatzen zen. Nire gelan hamabost ikasle besterik ez ziren gelditzen. Odriozola irakaslea iritsi zenean, liburuaren hamargarren gaia irekitzeko esan zigun.

—Barkatu, jauna, baina oraindik laugarren gaian gaude.

—Armendia jauna, gela honetan ni naiz irakaslea eta zu ikaslea. Beraz, nik hamargarren gaia irekitzeko esaten baldin badut zuk hamargarren gaia irekiko duzu. Ulertzen da?

—Bai, jauna.

Odriozola irakaslea gehien gorroto dudan irakaslea da; ikaragarritzko mania dit eta gainera burutik jota dago! Gogo handirik gabe hamargarren gaia ireki nuen. Irakasleak gai osoa irakurtzea eta guk nahi genuen atalaren laburpen bat egitea bidali zigun hurrengo egunerako!

Pasilotik mutilen komunerantz nindoan eta bat-batean sabaiko argiak denak batera lurrera erori ziren. Suerte handia izan nuen, ez baitzitzaizkidan gainera erori, baina zoritxarrez beste norbaiti bai.

—Lagundu mesedez!

Segituan laguntzera joan nintzen, eta han, pasilo erdian, Garikoitz eta Maria Garcia ikusi nituen. Garikoitz Mariaren neba zen, nire gelakoa, hau da, hirugarren mailakoa, eta ganberroena; Maria, berriz, bigarren mailakoa zen, oso atsegina, ederra, azkarra... Berarekin gustatuta nengoen institutura etorri zenetik. Mariak konortea galdu zuen lanparak emandako kolpearengatik, eta Garikoitz hari lanpara gainetik kentzen saiatzen ari zen.

—Armendia! Lagunduko al didazu edo zer!

Bi aldiz pentsatu gabe Garikoitzi lagundu nion eta hark anbulantzia bati deitzen zion bitartean ni Maria zaintzen gelditu nintzen. Handik ordu erdira berriro bakarrik nengoen; Garikoitz bere arrebarekin anbulantzian joan zen eta ni, berriz, liburutegira joan nintzen Odriozola jaunak bidalitako etxeko lanak egitera. Pasiloan kandela batzuk jarri zituzten iluna ez egoteko, baina niri ez zitzaidan batere atsegina iruditzen. Giro beldurgarriegia sortzen baitzuen.

Liburutegian bost bat pertsona zeuden. Ez zen oso liburutegi handia, oso iluna zen eta han bakarrik egoteak beldur pixka bat eragiten zidan. Erdiko mahaian jartzea erabaki nuen eta gaia irakurtzen hasi nintzen.

“Kondaira zahar batek dioen bezala, IX. mendearen hasieran Eudes erregeak bere altxorrik baliotsuena ezkutatu zuen Frantziako herrixka batean. Eudesez bere altxorraren kokapena sekretuan mantendu zuen bere bizitza osoan, baina hil aurretik egunen batean merezi zuen pertsona batek aurki zezan mapa bat egin zuen. Mende askotan zehar inork ez zuen herrixkaren kokapena aurkitu, baino gaur egun badakigu herrixka hori Aiguèze dela, Frantziako hegoaldean.”

Testua irakurri ondoren nahiko harrিতта nengoen; egia ote zen kondaira zahar hori? Orduak eman nituen liburutegian kondaira horretaz berri gehiago biltzen, eta hari buruzko informazio pila aurkitu nuen. Laburpena horri buruz egitea erabaki nuen eta nik uste dut hamarrekoa atera zitzaidala.

Hurrengo egunean gelara iritsi eta lau ikasle gutxiago ginen; egia esan, ez nintzen batere harritu. Nire lekuan eseri nintzen, eta nire ondoan eserita Garikoitz ikusi nuen.

—Kaixo Armendia, eskerrik asko atzokoagatik.

—Ez horregatik. Zer moduz dago Maria?

—Hobeto. Hiriko ospitalera eraman dute, baina arriskuz kanpo dagoela esan zidan medikuak.

—Pozten naiz. Baina nolatan ez zara institutuz aldatu?

—Beste batzuk ez bezala ni ez naizelako koldarra. Seguru nago gertatzen ari den guztiak arrazoi logiko bat duela eta arrazoi hori zein den aurkituko dut.

Ezin nuen sinetsi entzuten ari nintzena. Garcia jota zegoen! Zer demontre jakingo zuen berak? Momentu horretan Odriozola irakaslea sartu zen gelara bere betiko aurpegi luzearekin. Gizon honen bizitzak oso aspergarria zirudien, inoiz ez genuen pozik ikusten-eta. Nire lana motxilatik atera eta entregatzera joan nintzen.

—Lan ona, Armendia. Oso gai interesgarria aukeratu duzu.

—Eskerrik asko, jauna. Galdera bat: zuk uste duzu kondaira hau egia izan daitekeela?

—Batek daki, Armendia... Baina badago jendea altxor bat lortzeko edozer gauza egiteko gai dena...

Nire lekura itzuli nintzen eta momentu batez Odriozola jaunak esandakoaz pentsatzen gelditu nintzen. Lehenengo aldiz Historiako klasea ez zitzaidan batere luzea egin. Garikoitzek, berriz, lo hartu zuen bideoa ikusten ari ginen bitartean. Gelatik atera nintzenean nire takilarantz abiatu nintzen hurrengo klaserako liburuak hartzera. Bat-batean haize korrante batek pasilo osoko kandelak itzali zituen. Handik minutu batera garrasi bat entzun zen pasilo guztian. Ikaratu egin nintzen, eta nire ondoan norbait zegoela nabaritu nuenean oraindik gehiago. Horren ikararuta nengoen, non liburuekin nire ondoan zegoen pertsonari buruko bat eman bainion.

—Aaaa! Zertan ari zara, Armendia? Jota zaude!

—Txo! Barkatu, ikaratu egin naiz eta norbait nire inguruan zegoela ohartu naizenean ez zait beste ezer bururatu...

—Jobar, zer mina! Txitxoa atera zaidala iruditzen zait.

Jarraian garrasia zetorren lekurantz abiatu ginen nire sakelako telefonoak zuen linterna batekin. Iritsi ginenean han ez genuen inor aurkitu. Alde guztietarantz begiratu nuen, baina han ez zegoen inor. Bertan bakarrik takila ilara bat eta mutilen komunak zeuden, baina egia esan ez zen oso garbi ikusten.

—Armendia, hemen ez dago inor. Zure irudimena izango zen.

Baietz esan behar nionean zerbaitekin estropezu egin nuen. Lurretik altxa nintzenean nire estropezua eragin zuen objektua hartu nuen: jaka bat zen. Izena zeraman begiratu nuen.

—Jaka hau Mikel Bengoetxearena da. Zuk uste duzu hemen ahaztu duela?

Garikoitzek ez zidan erantzuten. Hasieran ikaratu egin nintzen, eta bera zegoen tokirantz abiatu nintzen.

—Zer gertatzen da?

—Ho... Ho... Hori!

Sakelako linternarekin takilak seinalatu zituen, eta izoztuta gelditu nintzen takiletan "OSPA HEMENDIK!" hitzak gorriz idatzita irakurri nituenean. Posible izan zitekeen Mikel ere desagertu izana? Oraindik ez nengoen oso ziur, baina Mikel ez zen inondik azaltzen... Arratsalde horretan gelditzen ziren

ikasleek eskolatik alde egin zuten. Gehienek ez zuten itzultzeko asmorik, eta besteak... Egia esan ez ziren askoz gehiago gelditzen.

Garikoitz erizaindegira eraman nuen eta erizainak izotz poltsa bat eman zion. Egia esan buruan kozkor handi samarra zeukan. Erizaindegitik atera ginenean Garikoitzek liburutegira joan nahi zuela esan zuen, eta harekin joan nintzen.

—Zertarako etorri gara liburutegira?

—Ixo, Armendia! Hemen edozeinek entzungo gaitu.

Ez nuen ulertzen zer demontre egin nahi zuen Garikoitzek liburutegian; arratsaldeko seiak ziren eta eskola ia hutsik zegoen. Garikoitzek liburutegiko mahairik baztertuenera eraman ninduen.

—Entzun, Armendia. Gogoan al duzu nola esan nizun gertatzen ari zenaren arrazoa aurkituko nuela? Ba uste dut aurkitu dudala!

Mutil hau ez dago burutik sano. Ez dut uste horrela, bi egunetan, gertatzen ari denaren arrazoa aurkitzea posible izan daitekeenik.

—Bota ba.

—Ea ba.

Harrituta gelditu nintzen Garikoitzek bere praken poltsikotik libreta bat atera zuenean. Libreta ireki eta bertatik irakurtzen hasi zen.

—Oraindik ez nago guztiz ziur, baina desagertu diren ikasle gehienak Odriozola irakaslearekin Historia ematen zuten. Ikusten denez zuzendariari ez zaio batere axola ikasle guztiak beste institutu batera joaten baldin bagara. Bat-batean Odriozola jauna hamargarren gaia ematen hasi da oraindik laugarren gaia bukatu gabe. Hamargarren gaia hemen, Aiguèze herrian, ezkutatuta dagoen altxor bati buruz da. Eta gauzarik arraroenetako bat: desagerpen eta istripu guztiak mutilen komunaren aurrean gertatu dira.

Zur eta lur geratu nintzen entzundako guztiarekin; Garikoitz pertsona erdi atzeratu edo halako zerbait zela pentsatzen nuen. Egia esan, berak esandako guztiak zentzua zuen; nolabait esateko puzzleko pieza guztiak lortu zituen, eta orain pieza horiek elkartzea bakarrik falta zitzaigun.

—N... Nola jakin duzu hori dena?

—Oso azkarra naizelako. Eta zu Odriozola jaunaren bideo aspergarria ikusten ari zinen bitartean ni misterio hau ebazten saiatu naiz.

—Ikusten dudanez ez duzu denbora galtzen.

—Jakina ezetz. Beno, nire teoria kontatuko dizut. Nik uste dut norbaitek ikaratu egin nahi gaituela, modu batez institutua husteko.

—Izan daiteke... Baina momentuz ez daukazu inongo frogarik...

—Horretarako etorri zara zu, Armendia...

Ez dakit nola eta zergatik, baina orain Garikoitzen atzetik nenbilen txorakeriaren bat egiteko zorian. Iritsi ginen, eta han geunden biok zuzendariaren bulegoaren ate aurrean. Oso barregarri sentitzen nintzen, kasko bat buruan, ezkerreko eskuan linterna eta eskuinekoan hockeyko stick batekin.

—Benetan hau beharrezkoa al da?

—Bai, misteriozko milaka film ikusi ditut, eta prestatuta egon behar gara.

Jota zegoen! Baina idcía ez zen batere txarra. Ostiko bat eman eta zuzendariaren bulegoko atea ireki zuen. Barrura sartu ginen, baina han ez zegoen inor. Egia esan, ez nintzen batere harritu, gaueko bederatziak baitziren. Gela osoa miatu genuen, goitik behera, baina ez genuen ezer aurkitu.

—Ikusten! Hemen ez dago ezer. Nola pentsa dezakezu gure zuzendariak eskolatik bota nahi gaituela? Gainera oso barregarri sentitzen naiz.

—Isil zaitez, Armendia! Mmmm... Zerbait aurkitu dut!

—Ea, erakutsi.

Oso paper zaharrak ziren, baina nire ustez ez zegoen lagunduko zigun ezer.

—Eskolako planoak besterik ez dira.

—Ez hori bakarrik... Hemen kondaira zahar baten istorioa dago, baina ezinezkoa da irakurtzea! Hautsez beteta dago! Atxuss!

Garikoitzek hautsari ikaragarriko alergia zion, eta doministikuka hasten zen bakoitzean ez zen gelditzen.

—Nik irakurriko dut.

Irakurtzen hasi nintzenean istorioa nahiko ezaguna iruditu zitzaidan, baina ez nengoen guztiz ziur. Irakurtzen jarraitu nuen, eta bat-batean "Eudes erregearen altxorra" hitzak irakurri nituenean segituan konturatu nintzen zer zen gertatzen ari zena. Korrika zuzendariaren bulegotik atera eta Odriozola jaunaren bulegorantz abiatu nintzen.

—Armendia! Atxuuss! Nora demontre zoaz!?

Ez neukan hari erantzuteko denborarik. Beraz, korrika jarraitu nuen berak jarraitzen zidan bitartean. Odriozola jaunaren bulegora iritsi nintzenean bere mahaiko paperen artean bila hasi nintzen.

—Hemen dago!

Momentu horretan Garikoitz iritsi zen. Gaixoa asmarekin eta doministikuka zetorren. Poltsikotik Ventolina atera eta pasatu egin nion.

—Eskerrik asko, txo! Zer da aurkitu duzuna?

—Nire idazlana. Lana Aiguèze herriko kondaira zahar batetz da; hemen esaten duenez, Eudes erregeak altxor bat ezkutatu omen zuen herri honetan.

—Eta?

—Ba hori da zuzendaria bilatzen ari dena, Eudes erregearen altxorra!

—Oso ondo, Armendia! Jenio bat egina zaude!

—Orain hau egia dela frogatu behar dugu.

Kaskoaz gain, zientzia gelako su-jaurtigailua eta kamara digital bat hartu genituen. Mutilen komunerantz abiatu ginen. Ikaratuta nengoen. Garikoitzek, berriz, oso aurpegi lasaia zuen. Ziur nengoen barrutik nik baino beldur handiagoa zuela, baina Garikoitz Garciak ez zion inoiz inori berari beldurra sartzen uzten. Mutilen komunera iritsi ginenean oso urduri nengoen. Komunetik zetozen zarata arraroak entzuten ziren kanpotik.

—Ordua iritsi da. Zerbait gertatzen baldin bazait, esaiozu Mariari maite dudala.

—Zer!?

Atea ireki nuenean sorpresa izugarria eraman nuen. Ez zegoen ez tranparik, ez ezer. Barruan Basarte zuzendaria zurgindegiko taladroarekin komuneko lurrean zulo bat egiten ikusi nuen; lurrean eskolaren plano batzuk, pala bat, linterna bat eta langile kasko bat zeuden.

—Patetikoa.

Garikoitzek hori esan eta hamaika argazki atera zizkion Basarte jaunari. Oso zapuztuta ageri zen, baina egia esan oso plan ona bururatu zitzaion gure zuzendari maiteari.

—Eskerrik asko, Armendia jauna. Joan zaitezke.

Gelatik atera nintzen. Oso galdeketa luzea izan zen, baina orain dena argituta zegoen. Basarte zuzendariari epaiketa bat egingo zioten, eta pixkanaka jendea J. Verne institutura itzultzen hasi zen.

—Ondo jokatu duzu, Armendia.

—Odriozola jauna, zuk bazenekien gertatzen ari zena, ezta?

—Noski baietz.

—Orduan zergatik ez zenion poliziari deitu?

—Batek daki...

Odriozola jauna irteerarantz joan zen eta ez nuen berriz ikusi. Jolaslekura atera eta han Garikoitz neukan zain.

—Zer moduz? Ordubete baino gehiago egon zara.

—Ondo.

—Argazkiak eman dizkiozu.

—Bai, baina ez dira beharrezkoak izan, hasieratik sinetsi didate-eta. Gainera, desagertu ziren ikasle guztiak aurkitu dituzte, eta denak ondo daude.

—Pozten naiz. Zuk zertarako uste duzu nahiko zuela Basarte zuzendariak altxorra?

—Ideiarik ere ez...

—Kaixo!

Bira eman eta munduko neska ederrenarekin egin nuen topo.

—Kaixo Maria. Hobeto zaude?

—Bai, eskerrik asko zure laguntzarengatik.

Hori esandakoan aurpegia guztiz gorritu zitzaidala iruditu zitzaidan, eta are gehiago Mariak masailean musu bat eman zidanean.

—Je je je.

Mariak irri egin eta irteerarantz abiatu zen. Bat-batean norbaitek zaplazteko bat eman zidan.

—Aaaaa! Jota zaude!?

—Hori lehengo egunetik zor nizulako, eta bestea nire arrebarekin tonteatzeagatik.

—Bestea?

Eta beste zaplazteko bat eman zidan.

—Je je je. Zer, izozki baten bila etorriko zara?

—Ez dakit ba...

—Maria ere badator...

—Ongi da!

Biok barrez hasi ginen. Irteeran Mariarekin bildu ginen eta hirurak izozki bana hartzera joan ginen.

Beraz, azkenean Basarte zuzendaria kartzelara joan zen, ikasleak pixkanaka institutura itzultzen hasi ziren eta altxorak ezkutuan jarraitzen zuen. Agian egunen batean norbaitek aurkituko du, baina, Odriozola irakasleak esango lukeen bezala, batek daki...